


AIURRI


BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2018-06-01 / 568. ZENBAKIA / 14. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Euskal dantzak ikusgai, asteburu honetan

Larunbatean Urnietan "Urnieta dantzan" jaialdia; igandean Andoainen "Haurren Euskal Jaialdia". Biak ala biak kalez kale ospatuko dira / 5, 10



Euskaraldiak Andoaingo "Hamaikakoa" aurkeztuko du, ostiral honetan / 14



Ekainaren 10eko giza kateari begira lanean ari dira Andoainen eta Urnietan / 16



Urrats berria, historikoa, berdintasunaren bidean

Zizurkil-Andoain aurtengo Gipuzkoako Herriartekoan, mutilen artean lehiatzen aritu zen Nora Mendizabal Olazabal andoaindarra. / 11

EKAINAK 2, larunbata URNIETA

EUSKAL QUIDDITCH KOPA 2018

Hiru talde borrokan, Euskadiko txapeldunak izateko

Ekainaren 1ean, 19:00etan
Lekaion HITZALDIA
Quidditch-a zer den azaltzeko

ORDUTEGIA	10:00	Golden Dragons / Gasteiz Gamusin
	11:00	Gasteiz Gamusin / Bizkaia Boggarts
	12:00	Golden Dragons / Bizkaia Boggarts
	13:30	Finalaurrekoa
	14:30	Finala

www.euskadiquidditch.eus

Jai giroko Gazte Festak

Kirol eta kultur mailako hitzordu ugarirekin batera, ospakizunetarako tarteak izan da Urnietan. Bereziki otorduen inguruan antolatuta direnak

Erredakzioa URNIETA

Urteko hitzordu nagusietakoa izan ohi da, hainbat herri eragilek ekimen ezberdinak aantolatzeko baliatzen dutena. Jai

hasieran, esaterako, ospakizunak Etxeberri plazara zabaldu ziren. Bertako guraso taldeari esker arratsalde pasa polita izan zen. Larunbatean, euriak bere ager-

pena egin bazuen ere, Zumbakoek animoz beterik ekin zioten saioari. Kanpo faktoreak aldeko ez direnean, gogoia izatea ezinbestekoa baita.

Eskertza mezua Udaletxetik

Mikel Pagola, David Rosco

"Urnietako Udaleko Gobernu taldeak eskerrak eman nahi dizkizue herritar guztiei beste behin jai eredu garri batzuek gozatzeko burutu duzuen ahaleginagatik.

Eguraldia oso aldeko ez izanagatik, eta azken orduan aldaketa txikiren bat egin behar izan dugun arren, programatuta zeuden ekintza guztiak aurrera

eramatea lortu da. Hori neurri handi batean herriko elkarteek egin duzuen lan bikainarengatik izan da eta guk esfortzu eta jarrera hori eskertu nahi dizkizuegu, zuen ekarpena funtsezkoa izan da eta.

Horri esker jaiek iraun duten hiru egunetan Urnietako kaleak, giroz, kolorez, umore onez eta alaitasunez bete dira. Gainera, errespetuzko giro batean garatu

dira festak eta arlo hori ere azpimarratu nahi dugu, guztion arteko elkarbizitza ezinbestekoa da eta.

Beraz, eskerrik beroenak Gazte Festak posible egin dituzuen guztiei eta ekintza desberdinetan parte hartu duzuen guztiei.

Bestalde, hilero ospatzen diren Jai Batzordeetan parte hartzeri gonbidatzen zaituztegu. Bertan elkarlean jardungo dugu hurrengo jaiak prestatzen".



Tradiziozko hitzorduak ezinbestekoak dira Gazte Festetan. AIURRI



Etxeberriren bila jolasa egin zuten ostiral arratsaldean, auzuneko guraso talde baten lanari esker. AIURRI



Suziriaren ostean ohikoa izaten da Egape dantza taldearen emanaldia. AIURRI



Lauzpabost kilo sardina eskaini zituzten Gazte Festen hasieran, Etxeberri plazan. Horrez gain, edaria. AIURRI



Jaiaren hasierako suzeria, Mikel Pagola alkatearen eskutik. AIURRI





Film ezagunen afarirako edota euskal artisten afarirako, txikiteroarena guztiz moldagarria den mozorroa da. AIURRI



Pailazoak, euskal artistak. Benetakoak Urnietan izan ziren, maiatzaren 18an. AIURRI



Herri kirolariak sukalde kontuetan.



Umorerik ez zen falta izan Gazte Festen hasierako afarian. AIURRI



Sukaldariak, piparra eta gatza. AIURRI

Adinekoen ibilaldia Urnietan



Bertakoek zabaldu zieten bidea inguruko herrietatik etorritakoei. AIURRI




Aurtengoan Urnietari egokitu zitzaion adinekoen irteera antolatzea. AIURRI



Euriak agerpena egin zuen, zoritxarrez. Irudian, partaideak, irteteko unean.

Irura, Tolosa, Zizurkil, Villabona, Anoeta, Aduna, Berastegi, Ibarra eta Urnietako 132 ibiltari irten ziren Denda Berritik. Ibilaldia amaituta, 150 lagun bildu ziren bazkarirako.

Gazte Festak Aiurri.eus gunean



AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



Kantu eta dantza

Plazan, kalean edota tabernatan kantuan eta dantzari aritzeko aukera ugari izan zen aurtengo jaietan. Asteburu osoa ekitaldiz beterik izan zen



San Juan plazan dantzari eta txistulariek euskal folklorea biziberritu zuten, beste urte batez. AIURRI



Jauregik berak konposaturiko pieza ederrarekin hasiera eman zion Txanbolin elkarteak igande eguerdiko emanaldiari. AIURRI



Euria ez zen oztopo izan Zumbako kideak plazara irteteko. AIURRI



Gazteak eta helduak musika doinuen pean aritu ziren dantzari. AIURRI



Reziklador ikuskizuna Egape ikastolako jolastoki estalian. AIURRI

Egun osoko festaren abiapuntua



Koadrila ugari hurbildu zen larunbateko gazte bazkaira. AIURRI



Bazkaria egiteko Egape ikastolako jolastoki estalian bildu ziren. AIURRI



Argazkian ikus daitekeenez, mahaiaren bueltan giro onean ziren gazteak.

Adin guztietako berrehun dantzari ikusteko aukera

Egape dantza taldeak, Txanbolin txistulari elkartearekin eta Urnietako Udalarekin batera, Urnieta Dantzan saioaren hamabigarren edizioa antolatu du. Egun osoko ospakizuna izango da, Zelaitxo plazan erromeriarekin amaituko dena

Erredakzioa URNIETA

Lau urteko haurrek, hirurogei urtetik gorakoek, denek tokia izango dute aurtengo Urnieta Dantzan jaialdian. Kalea hartuko dutela esan daiteke, Idiazabal kalea ibilgailuen pasabiderako itxiko baitute. Indartsu daude, ekimenaren atarian: "Taldea sortzera bultzatu gintuzten helburu eta motibazioek indarrean jarraitzen dute: gure kultura, ohiturak eta tradizioak plazaratzea, Euskal Herrian ditugun dantza ezberdinak ikusteko eta erakusteko aukera izatea eta aldi berean, tradizioan oinarritutako pausoei sortutako koreografi berritzaileak jendarean eskaintzea". Euskal dantzak ikustea gogoko duenarentzat, beraz, baztertu ezin daitekeen hitzordua da larunbatekoa. Ikusleek ere parte hartzeko aukera izango baitute, bereziki, Jaiki Hadi musika taldeak Zelaitxo plazan eskainiko duten erromerian.



Plazido Muxikan izango da, ohi bezala, emanaldi nagusia eguerdiko 12:30ean hasita.

Ekainak 2, larunbata

11:00 Txikien emanaldia San Juan plazan.

11:00-12:30 Dantzarien kalejira Idiazabal kalean.

12:30 Emanaldi nagusia Plazido Muxika plazan.

19:00 Erromeria Zubitxo plazan.

Ekainean ikuskizun gehiago

"Ez utzi dantzatzeari" kale ikuskizuna
Gazteen taldea
Ekainak 15, ostirala
22:00. San Juan Plaza

"Kololedantz" Gazten emanaldia
Gaztetxoaren taldea
Ekainak 17, igandea
17:30, 19:30. Sarobe



Kirol jarduera berria ezagutzeko aukera izango da Urnietan. UDALA

Kirol jarduera berria ezagutzeko aukera, asteburu honetan

Quidditch kirola hizpide izango dute Lekaion, ostiral honetan. Eta larunbatean erakustaldia futbol zelaian

Erredakzioa URNIETA

Asteburu honetan kirol jarduera berria ezagutzeko aukera izango da Urnietan, Quidditch izenekoa. Gazte nahiz helduek egiteko aproposa omen da eta, datu azpimarragarria, neskek eta mutilek elkarrekin jokatzen dute. Araudiaren arabera, talde bakoitzak zelaian eduki ditzakeen zazpi jokalarietatik gehienez ere lau, sexu berekoak izan daitezke. Antza denez, hamahiru urte besterik ez dituen kirol jarduera honen zabalpena handia izaten ari da mundu zabalean. Euskal Herrian, abiatze egoeran dagoela esan daiteke. Dagoeneko bi talde daude, Bizkaiko *Bogarts* eta Gasteizko *Gamusins*. Gipuzkoan Gipuzkoa *Golden Dragons* taldea sortzeko urratsak ematen ari dira, baina oraindik ere nahikoa jokalaria ez dituzte. Urnietako saioak kide berriak gerturatzeko balio beza.

Larunbat honetan, ekainak 2, Euskal Koparen lehen edizioa jokatuko da Urnietako futbol zelaian. Goizeko 10:00etan hasita hiru taldeek parte hartuko dute. Donostiakoak parte hartu ahal izateko, beste bi taldeek jokalaria izango ditzakete.

Hitzaldia ekainaren 1ean

Kirol jarduera berria ezagutzeko hitzaldia eskainiko dute Lekaion. 19:00etan hasita, Quidditch-a zer den azalduko dute. Ondoren, Gipuzkoako taldearen gainean azalpenak emango dituzte, beti ere kide berriak lortze aldera. Entrenamendu saioen inguruan eta dinamikaren berri emateko aukera baliatuko dute.

Harry Potterren liburuetan agertzen den kirolaren antz handia badu ere, agerikoa da desberdintasun handiena. Hezur eta haragizko jokalariek ez dute hegan egiten, korrika baizik.


AEBtik datorren kirol jarduera berria

Quidditch izeneko kirol jarduera berria da. Amerikako Estatu Batuetan 2005. urtean sortu zen jarduera da, zeinean zazpita jokalariz osaturiko bi taldek hockey pista baten neurriak dituen zelai batean aritzen diren. Zelaian albo bakoitzean hiru uztai ipintzen dituzte altuera desberdinetan, eta azken helburua aurkako taldeak baino puntu gehiago edukitzea da. Baloiak daude tartean eta uztaiaren sartutako gol bakoitzarengatik 10 puntu eskuratzen dira. Bestetik, snitcha dago, tenisaren pilota modukoa. Jokalari batek eraman ohi du bere gerrian zintzilikatuta, eta hori eskuratzen duen taldeak 30 puntu lortzen ditu. Jokalariek errazta deitzen dioten makila daramate hankarteetan. Interesa duenak internet sarean aurki ditzake irudiak eta bideoak.



KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Amutxastegi

Alkate zenean ere bere abizena euskaraz idazten genuen Aiurri. Aspaldi ezagutzen dut Estanis Amutxastegi, ondo gogoan dut egin nion lehen elkarrizketa. Joseba Pagazaurtundua hantxe zen eta bien artean erantzun zituzten neronek egindako galderak. Kazetari modura nahiko nuke biak elkarrizketatzen jarraitzea, zorritzarekin ez da posible izango.

Facebook-en Estanisen igandeko *sermoiari* erreparatzen diot: "Gaur ez noa mezara", "Ez dagoela latineraz mezarik? Ba gaur ez noa mezara". Irribarrea sorrarazten dit bere antiklerikalitasunak. Berarekin identifikatzen naiz.

Joan zen astean "Oso haserre nago Romangordo herriko sozialistekin" irakurri niola adierazi nuen txoko honetan bertan. Gehiago esango dut, horren harira mezu publikoa idatzi nion Facebook-en bertan: "Iaz, Estanis, Andoainean izan zen hango alkatea. Andoaingo Udalak eta Aldundiak harrera instituzionala egin zioten. Hain txarra al da hango alkateak keinu berarekin erantzutea eta Andoaingo Udal ordezkariak gonbidatzea?". Erantzun zidan: "Neretzako bai". Hauxe azaldu beharrean nago, zeren eta Andoaingo sozialistek joan zen asteko nire iritzia erantzuna eman diote (ikus alboko zutabea), "akusazio oso larriak" edota "errespetu falta" bezalakoak adieraziz. Ez dakit non ikusten dituzten hain karga handiko adiera gordin eta ezkorrak nire iritzi artikuluan. Ez naiz errespetu falta zalea.

Nork eragin zuen bidaia bertan behera uzteko erabakia ez da garrantzitsua, bidaia bera bertan behera uztea baizik. Romangordoko sozialistekiko Amutxastegiren haserreak eta Andoaingo EH Bilduko ordezkariak preso baten aldeko bilkuran egotearekiko PSE-EEren desadostasunak bi ebidentzia dira, aurreko asteko iritzi artikuluko argudio nagusiari erantzuten diotenak: Bi kasuetan, ulertu behar dugunez, PSOEko kargu ofizial batek EH Bilduko biri harrera egitea arazoa da. Testuinguru politikoan kokatu behar da, beraz, afera. Esan beharra dagoela iruditzen zait, herritarrari horrelako informazioerik ez zitzaiolako eman.

Artikulua idatzi beharrean iritzia alde egin genuen, alderdietako prentsa bulegoekin asuntu hauek luzatu egiten direlako. Gaur gaurkoz, esaterako, erantzunik gabe jarraitzen du iazko maiatzean PSE-EEri bidali genion emailak. *Primariatako* emaitzak eskatu genizkien. Erantzunaren zain jarraitzen dugu.

Aurreko asteko kontaketa bidaiaren suspentsioaren ordu zehatzik ez jakiteak nire argudiotegia baliogabetzea iradokitzen duenarentzat, *anai* izan daitezkeen bi erakunde artean egon den harremanen eteteaz libre eta ezkutatu gabe hitz egitea sana eta beharrezkoa da.

POSTONTZIAN

Ubeda jaunari

ANDOAINGO SOZIALISTAK

Andoaingo sozialistok erantzuna eman nahi diogu aurreko asteko Zabalik ataleko artikuluan adierazten duenari (Aiurri astekaria, 567. zenbakia, 4. orrialdea).

Izan ere oso akusazio larriak egiten ditu, gure ustean gainera Andoaingo sozialistekiko errespetu falta izan dena.

Bere artikuluan, harro dio ez duela denbora asko hartu behar izan bisitaldia bertan behera uzteko zer gertatu zen jakiteko eta erantzukizuna Amuchastegi jaunari (eta ez, beraz, Amutxastegi) leporatzen dio maiatzaren 17an 12:56tan Facebook sarean egindako iruzkin batengatik. Kazetari batek informazioa argitaratu aurretik kontrastatu behar duela

iruditzen zaigu, eta kasu honetan ez da horrela izan. Egin izan balu, EH Bilduri edota guri sozialistoi eskatuta, esango genion Andoaingo alkateak maiatzaren 17an 10:38tan bidalitako emailean jakinarazi zigula bezperako iluntzeko 20:00tan bisitaldia bertan behera geratu zela. Beraz, zail da Facebookeko iruzkin bat bisitaldiaren etetearen abiapuntua izatea.

Denok dakigu errua besteei leporatzea bakoitzak bere barnean egin dituen jarduerak begiratzea baino errazagoa dela, bereziki, gauzak gaizki irteten direnean.

Ez al duzue uste beharbada bidaiaren suspentsioaren atzetik EH Bilduk izan duen jokabide bat egon daitekeela, inolako beste errudunik bilatu beharrean?

Bidaia bertan behera geratu baino lehenago argazki bat argitaratu zen, zeinean Andoaingo alkatea eta EH Bilduko kultur zinegotzia agertzen diren preso baten aldeko ekitaldian.

Etorkizunerako zure esanetara gaude, beti bezala, eman nahiko duzun inguruko edozein informazioa egiaztatzeko.

* Erredakzioan itzulitako gutuna.

[Oharra: Andoaingo sozialistek, gutun honekin batera, Zumea plazan Ozaetaren aldeko ekitaldiko argazkia erantsi dute, hedabide ezberdinetan argitaratu dena. Espazio faltagatik ez da atal honetan sartu].

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ
 ALJATUAK: ALJATUAK
 TOKIKOM
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
 ANDOAINGO UDALA
 URNIETA UDALA
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
 GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
 ZIURTAGIRIA:
 BABESLEAK:
 AIURRIKO HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

“Andoaindar ugari erakartzen du Kultur Asteak”

IÑAKI GOMEZ EXTREMEÑOEN 40. KULTUR ASTEKO ANTOLAKETA TALDEKO KIDEA

Erredakzioa ANDOAIN

Makina bat ekitaldi antolatu dira Extremadurako kultura eta ohiturak biziberritzeko.

Nola dator aurtengo egitaraua?

Ez dakar berrikuntza handirik. Tradiziozko ekitaldiak ospatuko dira: folkore jaialdia, kultur lehiaketak, joko tradizionalak, ekintza gastronomikoak...

Ekitaldi guztien artetik, zeuk zein duzu gogokoena?

Hunkigarria egiten zait asteazkeneko ekitaldia, 65 urtetik gorakoentzat antolatzen den otordutxoa. Bestalde, folklore jaialdiaren osteko afariarekin, gozatu ederra hartzen dut.

Extremadurarrak, andaluziarrak, euskaldunak, galiziarak... Agudo asko jartzen dira denak dantzan.

Modu informal batean, kulturen arteko elkarbizitza islatzen da ezin garbiago.

Zein helbururekin antolatzen duzue kultur astea?

Extremadurako kultura, folklorea, ohiturak,



Iñaki Gomez ostiraleko folklore jaialdiko kartela eskuetan, elkarteetan. AIURRI

gastronomia... sustatu nahi dira. Herritar gehien erakartzen dituen ekitaldia da, azaroko txerriaren hilketaren ekintzarekin batera. Hutsik egin ezinezko hitzordua bilakatu da

bazkideentzat ez ezik, baita ere bazkideen senitartekoentzat eta andoaindar askorentzat. Azken batean, elkartearen atzean giza komunitate oso bat dagoela frogatzen da.

Belaunaldi gazteei erakartzen al die elkarteak?

Egiari zor, badago aldea belaunaldien artean. Normala da hori gertatzea.

Extremaduran jaio zen lehenengo belaunaldiari sentimendu berezia eragiten dio elkarteak. Bigarren eta hirugarrengoko kideengan, ordea, asko galdu da elementu afektibo hori; Euskal Herrian jaioak eta haziak dira, euskaraz dakite, elkarteak bazkide egiten dira, Extremadura atsegin dute, senideak dauzkate han eta gustura joaten dira hara bixitan... Baina...

Nola dago Andoain Extremadurako herriren batekin senidetzeko ideia?

Iaz egin zuen proposamen hori Andoaingo Udalak, eta ilusioa eragiten zigun, nahiz eta azken aldiari atzerapausoren bat gertatu den. Merezki duen ekimena da, hango eta hemengo herritarren artean harremanak edukitzea, kulturen arteko trukaketa egotea... Extremaduran jatorria duten milatik gora herritar biziko dira Andoainen; bazkideen artean, esaterako, Valle de la Serena, Arroyo de la Luz eta Romangordo herrietakoak dira gehienak.

HAU ERE BADUGU!

Mendi lasterkariak heroi berriak



Nora Mendizabalen debutak adina irismen izan zuen eskualdean Zegama-Aizkorriren inguruko albiste sortak. Aurretik landutako informazioa, bertatik zabalduko argazkiak edota sailkapenen inguruko albisteak oihartzun zabala izan dute. Kirol heroi berriak dira mendi lasterkariak.

Kirol mailako albisteak sarean



Andoainen tamaina handia hartzen ari da Kirol Egokituen jaialdia. Batzokiak sustatuta, eta herriko kirol taldeekin elkarlanean, plaza ederra eskaintzen zaio kirola egin nahi duen edonori. Instagram sarean goiko argazkiak zabalpen handia izan du. Ikusten denez, gola gogotik ospatu zuten.

Estiluak kalean

Zabalpen handia izaten ari dira Nafarroa plaza inguruan aurreko batean izandako istiluen irudiak eta iruzkinak. Bizilagunen artean kezka pizteko modukoa bada ere, askok arrazismoaren mugan egon daitezkeen ondorioak ateratzeko baliatzen dute gertaera hori.

Igaro berri diren Santakruzetan, goizeko ordu txikietan, antzeko istilua izan zen eta askoz ere oihartzun txikiagoa izan du sare sozialetan eta hedabideetan.

DATUAK

Ehundik gora kide

6 urtekoekin hasi eta 66 urte bitartekoak arte, egun 110 partaide aktibo ditu Katramila Andoaingo antzerki taldeak. 14 talde ezberdin, guztiak ere martxan, eta ikasturtean zehar egindako lana joan zen asteburuan erakusten aritu ziren. Egongo dira kopuru horietara iritsiko diren herriak, baina Andoaingo herriarentzat aspaldiko urteetako kopururik handiena da. Denborak ematen duen ikuspegitik neurtuta, indartsu dago antzerkizaletasuna. Lantaldeak zerikusia izango du horretan, eta bereziki hezitzaile taldeak. Hots, Kristina Roperok, Iker Etxarrik, eta Miren Gojenolak. Harrobia lantzen trebeak dira.

GORA ETA BEHERA



Gazteleku pilota elkartearen lana berdintasunaren bidean

Herriartekoan, partida ofizialean, emakumezkoa kantaratzeko lehenak izan dira. Kirolean baldintza berdinetan ibil daitezkeela erakutsiz, horrela. Gazteleku bide luzea du berdintasunaren alde lanean. Emakume Pilotari ekimena edota Iturzaeta memoriala beste bi adibide gehiago dira. Txaloak ondo merezita dauzkate.





Helduen mailako taldeak ostegunean eskaini zuen antzezlan, Basteron. Argazkian Miren Mujika, Aloña Aroztegi, Uxoa Elustondo, Urtzi Ugalde, Ane Jalon, Amaia Elizondo eta Helena Zubillaga. AIURRI

Antzezleen harrobi oparoa

Katramila taldeak antzerki erakustaldi paregabea eskaini zuen joan zen asteburu osoan zehar. Ostegunean hasi eta larunbata bitarte, era guztietako antzezpenak taularatu zituzten. Aro oparoa bizi du antzerkigintzak Andoainen

Xabier Lasa ANDOAIN

6 urtetik 66 urte bitarteko 110 antzerkizalek osatzen dute Katramila antzerki taldearen familia. Hamalau taldetan banatzen dira eta nork bere leku eta ordutegiak dauzka antzerki zaletasuna lantzeko, Kristina Ropero, Iker Etxarri eta Miren Gojenolaren aginduetara. Horiek guztiak Katramila Eguna ospatzeko bildu ziren joan zen asteburuan, egitarau oparo baten baitan. Amateur mailako antzerkigintzak erakustaldi ederra eskaini zuen Basteron.

Helduen taldeak ekin zion egitarauari, ostegun iluntzean. *Katramilatuta* antzezpenarekin ironiari eta auto-parodiari heldu zioten beste behin, ikusleen barreak eraginez maiz. Pertsonaia ugari egin zuten topo oholtzan: Andoaingo kultura zinegotzia, Basteroko garbitzailea eta argien arduradunak, poxpolinak, Raphael kantariaren imitatzaileak, txiste kontalaria..., Emanaldian zehar gogoan eduki zituzten Katramilako talde amateurren hasieratik parte hartu izan duten antzezleriak

baina baita egun horretan oholtzara hurbildu ezin izan zutenak ere. Taldeak ziurtatuta dauka etorkizuna, ikusi ahal izan zen bezala herrikide gehiago hurbildu baitira antzezpenaren munduan murgiltzera.

Gazteen txanda, ostiralean

Ostiralean gazteen taldearen txanda izan zen, Kristina Roperoaren aginduetara. *Beldur... Txoua* izan zen beren emanaldiaren izenburua. Txalo zaparrada jaso zuten antzezleek, egin zuten lanaren aitortza modura.

Katramila eguna larunbatean

Larunbatean, nahiko goiz hasi ziren jendaurreko lanean Katramilako kideak. Zumea plazan, haurrek osatutako lau taldeek ipuin ugari interpretatu zituzten, eguraldi petralari aurre eginez. Ikusleen harridura eragin zuten, erakutsi zuten naturaltasunagatik.

Eguerdiko 12:30ean, Ondarreta ikastetxeko aterpean, beste hiru taldek hartu zuten. Pirata borrokalariak, marrazoak, hegazkin bateko azafatak, gidariak eta bidaiariak eta espazioko bidaiariak *Itsasontzia*, *Hegazkina* eta *Espaziontzia* izenburuko antzezlanaren partaide zizan ziren.

Hiru talde horiek saioa bukatu bezain pronto, Ondarretan bertan, bazkaritan bildu ziren Katramila osatzen duten kide guztiak: hots, talde eragilea, antzezleak, horien senideak eta jarraitzaileak. Arratsaldean, ospakizunaren azken txanpa izan zen, Basteron. Lau talde taularatu ziren, ordubeteko ikuskizun polita eskainiz. Makina bat pertsonaia biziberritu zituzten, ikusleen barreak eraginez: gosaritan biltzen diren familia

bateko kideak, ezkontza xeble bateko partaideak, guraso pittin bat autoritarioak imitatzen dituzten seme-alabak...

Jaialdiari amaiera emateko Katramilako haur eta gazte guztiei oroigarriak banatu zituzten, aurtengo Katramila Egunari agur esatearekin batera.

Poza nagusitu zen Basteron, eta aktore asko dagoeneko hurrengo ikasturtea noiz hasiko zain daude. Antzerkia gozamenarekin identifikatzen duten seinale.

HELDUEK LEHEN EMANALDIAN IRONIARI ETA PARODIARI HELDU ZIOTEN

HELDUEN TALDEAK ETORKIZUNA ZIURTATUTA DAUKA, KIDE BERRIAK BATU ZAIZKIELAKO



Hegazkinaren pasadizoa antzeztu zuen taldea. AIURRI



Espaziontzian Andoinera heldu zen neskato kuadrilla. AIURRI



Aitona, bilobari ilea moldatzen. AIURRI



Piraten arteko borroka. AIURRI



Marrazo dibertigarria. AIURRI



Ezkontza xelebrea, bikote ezjakina tarteko. AIURRI



Familia gosaritan bilduta, denak kexaka. AIURRI

Gazteen lanarekin aho bete hortz



Gazteen taldea, Beldur... txoua antzezlanean. AIURRI

Katramila osatzen duten hamalau taldeak bikain aritu badira ere, azpimarratzekoa da gazteek ostiralean taularatu zuten *Beldur... txoua* ikuskizuna. Bi urtez landu dute obra, eta profesionalen pare aritu ziren. Beldurra hartu zuten gaitzat. Drakonte, Txouaren aurkezle eta Beldurtxoen gobernadorea, antzezle gazteen beldurrak dantzan jartzeko prest agertu zen gau osoan, baina azkenean gazteen sormen pertsonala eta barrunbeak mugitzeko gogoia nagusitu ziren. Tonu kritikoa eta salatzailea hartu zuen antzezlanak: gazteen bakardadeari buruzko estereotipoak, gazteen arteko bortxazko harreman pertsonalak, gailu teknologikoekiko menpekotasuna... Itsaso Mendizabal, Ainhoa Mujika, Ainhoa Letamendi, Maddi Ruiz, Amaia Garcia, Nora Urdanpilleta, Janire San Sebastian, Jon Olaetxea, Itsaso Santxez eta Estitxu Diaz izan ziren oholtzara igo ziren antzezleak. Txalo zaparrada jaso zuten.



Gazteen taldea, Kristina Ropero zuzendaria txalotzen. AIURRI



Gaztetxoeren taldea, gurasoak kritikatzan dituen antzezlanean. AIURRI



Urki dantza taldeko kideak Andoaingo Kale Nagusian ateratako argazkian. Dantzaz gozatzeko aukera izango da igande honetan. AIURRI

Jaietako pregoilariak

Urki dantza taldeak egingo du aurtengo San Juan jaietako pregoiaren irakurketa eta txupinazoaren jaurtiketa. Datorren ekainaren 22an izango da jaien hasierako ekitaldia, ostiralarekin, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Jai Batzordea osatzen duten elkarteek halaxe jakinarazi dute, berriki, bozketa bidez hartutako erabakiaren ondorioz. Beste hautagaitzen ondoan, dantzariena da babes gehien lortu duena.

Dantza taldeak hogeita hamar urtez Andoaingo herriari eta euskal folkloreari eskainitako guztiagatik, pregoia irakurtzeko nahikoa merezimendu bildu dute. Eurek izango dute, beraz, jaietako emateko ohorea.

Haurren euskal jaialdia igandean

Igandean musikaz, bertsoaz eta dantzaz jantziko dira Andoaingo kaleak. XXX. Haurren Euskal Jaialdiak Euskal Herriko bazter guztietako talde ugari erakarriko ditu aurtengoan ere. Egun osoko egitaraua prest dute

eta mutiko ibiliko dira Andoaingo kaleetan barrena.

Goizean hasita

Goizeko 11:00etan ekingo zaio jaialdiari Goikoplazan, taldeei

HIRUREHUN NESKA ETA MUTIKO DANTZARI ARITUKO DIRA ANDOAINGO KALEETAN BARRENA

harrera eginez. Besteak beste, Haritz Mujikak gidatzen duen Andoaingo gazteen Bertso eskolako ikasleek zenbait bertso kantatuko dituzte, ongi etorria emanaz. Ondoren, taldeek nork bere bidea hartuko du eta Andoaingo kale eta plazetan barrena ibiliko dira, musika eta dantz aerakuslatdiak eskainiz. Bidean, hamaiketakoak egiteko aukera edukiko dute... Horretarako, herriko zenbait elkarte gastronomiko (Andoaindarrak, Belkoain Berri, Hogar Extremeño, Irun-

berri, Kotoi eta Peña Santa Krutz) sukalde-lanak egiteko prest agertu dira.

Eguerdiko 13:00etan, berriro Goikoplazarako bidea hartuko dute taldeek. Jaialdiaren ekital-

URKIK ESKERTZA ADIERAZI NAHI DIE URTERO LAGUNTZA ESKAINTZEN DIETEN ELKARTEEI

di nagusia burutuko da bertan. Bazkaritarako, banatu egingo dira taldeak, elkarteetan.

Arratsaldean segida izango du jaialdiak. 17:00etatik aurrera, zenbait dantza eta musika saio-oren emanaldiez gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek, eta bukatzeko, tradiziozko dantzaldiari ekingo zaio; orduan dantza-plazek protagonismo nagusia hartuko dute.

1988an sortu zen jaialdia

30. edizioa beteko du Andoaingo Haurren Euskal Jaialdiak; 1988an jaio zen Urki dantza taldearekin batera, eta urtez urte ospatu da, hutsik egin gabe. Harrezkero, herriko makina bat dantza zaleen konpromisuari esker joan da bidea egiten eta sendotzen; ezinbesteko erreferentzia bilakatu da euskal folkloreakaren unibertsioan.

Urki taldeak eskerrak eman dizkie urtez urte laguntzaile fin direnei; alegia, Andoaingo Udalarri, elkarte gastronomikoei, hamaiketakoak eta bazkariak prestatzen dituzten senitartekoei eta herritarrei, eta, baita kartelaren egileari ere.



Xabier Lasa ANDOAIN

Dantzarietz gain, txistulariak, bertsolariak, trikitilariak, gaita-jotzaileak, abesbatzak eta talde instrumentalak bilduko dira Andoainean, goizez zein arratsaldez. Hona zein herrietatik hurbilduko diren: Leitza, Lekunberri, Ultzama, Lizarra (Nafarroa); Zaldibar (Bizkaia); Jutsi-Bunuze (Behe-Nafarroa); eta, Lasarte-Oria eta Zarautz (Gipuzkoa). Horiek guztiekin batuko dira Urki taldeko gazteak, jakina. Guztira, ia hirurehun neskatu

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Herriartekoan Andoaingo Gazteleku elkarteak urrats historikoa eman du emakumezkoa partida ofizialean kantxan ipiniz. Zuk, ordea, hedabideen aurrean adierazi duzu prozesu naturala izan dela zuentzat.

Albisteak izan da egun hauetan, baina Nora Mendizabal aspaldi ari zen gure artean lanean: Bost urterekin hasi zen pilota eskolan. Ibilbide guztia mutilekin egin du. Denon artean emakumezkoen pilota sustatzen ari gara eta horri esker zirkuituan lehiatzeko aukera dauka. Gainerakoan, urte osoan zehar, Arrate pilotalekuan mutilekin egiten ditu entrenamenduak.

Herriartekoa oso lehiaketa garrantzitsua da, eta joan zen asteburuan historian inoiz eman gabeko gertaera izan zen.

Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan ikus daitezkeen irudietan, maila ematen duen pilotaria ikusten da hiru mutilen artean lehian. 14-15 urteko pertsonak dira, eta adin horretan 22-20 emaitzara iristeko maila eman beharra dago.

Pilotak gogorrek dira, eta exigentzia maila handia dago maila horretan. Norak maila emango zuela jakin bagenekien, ziur geunden. Herriartekoan jokatzeke erabakia kirol irizpideen arabera izan da. Ez da behartutako egoera izan. Taldekide bat gehiago da.

Partidan sartuta zegoen erabat, gogo handia erakutsiz eta huts egindakoekin haserretuz. Pilotari modura nola deskribatuko zenuke?

Buruz oso azkarra da. Ez du besteek adina indarra, baina adibide argigarria emango dizut. Adin honetan sakea distantzia luze samarrera egin behar da. Ez da erraza. Zizurkilgo partida hartan sake motzogatik hainbat falta izan ziren partida osoan zehar. Partida horretan Nora Mendizabalek ez zuen sake bakar batean ere hutsik egin.

Ez du, beraz, besteen pareko indarrik izango baina bere indarrak oso ondo neurtzen dakien pilotaria da. Pilotari batek izan dezakeen bertute handienetarikoa hori da, duen indarrari zuku gehien ateratzea.

Aurkariekin hitz egin zenuten partida baino lehen? Nola hartu zuten erabakia?

Joaneko partida Arraten izan zen. Ondoren egin genuen aforian, itzulerako partidarako gure asmoaren berri eman genien. Urte hasieratik Norak Herriar-



Iker Uria, Andoni Alvarez eta Nora Mendizabal joan zen ostiralean, Zizurkilgo jokatu ondoren ateratako argazkian. AIURRI

Urrats berria berdintasunerantz

ANDONI ALVAREZ ANDOAINGO GAZTELEKU PILOTA ESKOLAKO ARDURADUNA

PILOTA Arraten ohikoa da Nora Mendizabal pilotaria mutilen artean jokatzen ikustea, taldekide bat gehiago delako. Arrate pilotalekutik kanpo, ordea, ikusmina piztu da

tekoan parte hartu behar zuela, klubean gure artean hitz eginda zegoen. Ez genekien joanekoan edo itzulikoan izango zen. Norarekin hitz egin eta gero, Zizurkilgo debuta egitea adostu

"HERRIARTEKOAN DEBUTA EGITEKO ERABAKIAREN ATZEAN KIROL IRIZPIDEAK DAUDE"

genuen. Izan ere, Arraten jokatzen zen partidaren biharamunduan Gasteizen beste txapelketa baten finala jokatzen zuen eta nahiago izan zuen partida horretarako indarrak gordetzea. **Partida hartan Intxaur pilotalekura joandako ikusleen aitortza antzematen da, zabaldu diren irudietan.** Norak jokatzeke erabakia ez genuen publiko egin nahi izan, baina ahoz ahokoarekin pilotalekura ohikoa baino zaletu gehiago hurbildu zirela konturatu ginen. Bat baino gehiago Nora-

ri bereziki animoak ematera joan zen.

Protagonistarekin hitz egiteko aukera izango da aurrerago. Hedabideetan izan duen oihartzunarekin zer dio protagonista nagusiak?

"NORA MENDIZABAL HARRITUTA DAGO HERRIARTEKO PARTIDAK IZAN DUEN OIHARTZUNAREKIN"

Oihartzun zabala hedabideetan



Aiurrik albisteak zabaldu eta gutxira, SER Euskadi irratsaioa eta EITB taldea izan ziren nazio mailan berria zabaldu zuten lehen hedabideak. Sare sozialetan, bestalde, erabiltzaile askok zabalpena eman zioten Zizurkilgo ateratako argazkiari eta bideoari. Horieta batzuk kluba eta herria zoriontzeko aukera baliatu zuten. Baita, noski, pilotariari animoak emateko ere.

Pozik dago, baina era berean partidak izan duen oihartzunarekin harrিতuta. Berarentzat mutilen artean aritzea naturala delako. Horrela ikusten du baina, zoritxarrez, kirol munduan ez da ohikoa.

Aitortza berezirik jaso al duzue?

Pilotazale izan edo ez, herrikide askok ondo hartu dutela ikusi dugu. Pilota eskola askotatik zorion mezuak iritsi zaizkigu, bide bat urratu dugulako.

Emakumezko gehiago ikusiko al dugu mutilen artean lehian?

Nesken mailan belaunaldi berriak datoz, maila ematen ari direnak. Eta maila hobetzen joango dira. Hamar urtekoen artean lau pilotari ditugu, eta hori pozgarria da. Ikusi da emakumezkoak horrelako lehiaketetan murgiltzea borondate kontua dela. Norak maila eman du eta hurrengo urtean ere jokatzeke aukera berdinak izan ditzake.

Andoainen Nora Mendizabal kantxan ikusteko aukera izango al da? Sanjuanetan akaso?

Jaietan txapelketa jokatuko da. Gainerako taldekideek bezala jaietako txapelketan parte hartzeke aukerak baditu, bai.



Xabier Almortza urnietarra Aizkorriko bidean. Ibilbidearen zati ugari hunkituta egin zituela aitortzen du. Zaletuen animo ugari jaso zituzten korrikalari guztiek. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Hanka zuztarrak gogortuta izanen dituzte oraindik Zegama-Aizkorri mendi maratoia bukatu zuten heroi horiek guztiek. Lauzpabost orduko muturreko ahaleginak ez du barkatzen, eta asteak behar izaten dira gorputza bere onera bueltatzeko. Baina gustuko tokian aldaparik ez dagoela dio euskal esaera zahar batek, eta halaxe sentitzen dira Zegaman helmugaratu ziren hiru urnietarrak. Xuban Ezeiza izan zen azkarrena, 4.57. Mikel Legarretak 5.24 behar izan zuen, eta Xabier Almorza debutariak ozta-ozta jaitsi zuen sei ordutako langa: 5.59.

Lainoan eta giro sargoria zegoela egin zuten bidea korrikalari guztiek, eta hezetasun handi horrek are gehiago zigortu zituen, berez nahiko zigortuta zeuden giharrak. Izerdi pasetan, ura edan eta edan, neurri handiagoan edo apalagoan, askok gainkargak edo zaintiratu arinak jasan zituzten. Mikel Legarreta veteranoak hitz hauekin laburbildu du bere 17. Zegama-Aizkorri maratoia: "Nahiko ondo hasi nintzen, baina Aizkorri gora sekulako sargoria sentitu nuen, izerdi asko, karranpak-eta zango sagarretan. Kresterioan nahiko mantso joan nintzen. Ordu laurden bat galdu nuen han, eta baldar samar nabilela ikusita, hanka altxa nuen, Zegamara iristeko asmoarekin".

Xuban Ezeiza gazteak ere giro sargoritsu horren ondorioak

Gustuko tokian aldaparik ez

MENDI LASTERKETA Xuban Ezeiza, Mikel Legarreta eta Xabier Almortza urnietarrek Zegama-Aizkorri bukatzea lortu zuten, fisikoki muga-mugan ibilita ere; Unai Ezeiza ez zen abiatu, saihetsetako lesio baten erruz

pairatu zituen Andraitetik behera. Ordura arte iaz baino lasaia-ago joan zen, "asko janez eta edaten, kontrolatzen". Sancti Spiritun gora emozionatu egin zen, "kristoren giroa zegoelako jendetzak egindako ilaran". Aizkorri gainera ondo iritsi zen Xuban, eta Andraitzera ere "uste baino hobeto, pixka bat atzeratuta pentsatuta nuen denborarekin". Azken 12 kilometroetan estutzen saiatu zen, "baina ezin, eta luzexka egin zitzaidan bukaera".

Porru eginda, baina 'finisher'-a da Xabier Almortza

Hiruretan okerren Xabier Almortza aritu zen. Okerren, edo gehien sufritu zuena, bitan lasterketa bertan behera uztear egon baitzen: "San Adrianen sumatu nuen izter atzealdeko mina. Abduktoreetatik-eta justu samar iritsi naiz, eta kargatzen hasi zitzaizkidan. Antolakuntzak


ikaragarri zaindu ninduen, batzuk reflex-a, besteek masajea...". Urbian lasterketa uzteko zorian izan zela gogoratzen du zintzo urnietarrak, "Aizkorriko krestrioan herio batean joan nintzelako. Fisio batek masajea eman zidan Urbian, eta dortsala entregatzera nindoanean, esan nion 'egon hadi pixka bat, azken saiakera egingo diat'". Esan eta egin. Andraitz gaina harrapatu zuen aurrena, eta Zegamara bidean, kalbarioa berriz ere. Norbaitek gatz pastillak eman zizkion arte: "Horrek indarra eman zidan, eta iritsi egin nintzen".

Korrikalaria denak badaki, finisher izatea zer den, proba bat bukatzeak ze poza ekartzen duen, eta behin helmugaratuta, gozatutako guztiarekin oroitu, eta sufritutakoa ahaztu zuen Almortzak: "Emozionatuta egin nuen bidea une askotan. Lasterketa izugarria da: jendea,

antolakuntza, herrikideak... Aizkorri gora jendearen oihuak entzuten nituen, eta norentzat ote ziren galdetzen nion nire buruari... Niretzat ziren!! Besoak altxa eta burrunba handitu egiten zela sumatzea... kristoren sententzia da". Almortzak, bere herioan, bidezidor ertzean animatzen zegoen jende ezagun askori eskerrak emateko kementa ere izan zuen.

Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren altxor preziatuena Remy Bonnett suitzarrak eta Ida Nilsson suediarrek, maratoiko garaileek, ez zuten ezagun askorik izango Sancti Spiritu edo Aizkorriko maldetan, baina haiek, korrikalari guztiek bezalaxe, bertaratutakoen hauspoa eta animoa jaso zuten. Lehenengotik hasi eta azken korrikalaria pasa arte gertatu bezala. Zegama-Aizkorriko altxor preziatuena zaletuak baitira.

Zegama-Aizkorri



Xuban Ezeiza, erdian.


Mendi maratoia

Urnieta:


107 Xuban Ezeiza 4:57:10
182 Mikel Legarreta 5:24:55
267 Xabier Almortza 5:59:25

Andoain:

162 Jon Ugalde 5:17:33
220 Iker Mujika 5:43:44
392 Beñat Erkizia 6:53:39



Beñat Erkizia andoaindarra.



Jon Ugalde andoaindarra.

Maiatzak 25, ostirala KM bertikala

Urnieta:

114 Ion Rodriguez 45:40

Andoain:

127 Oier Escudero 46:55

Oskarbi, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketan

GIMNASIA ERRITMIKOA Eibarren eta Durangon izan dira azken bi asteburuetan Gipuzkoako amateur finalean eta Euskadiko txapelketan parte hartzeko. Denboraldi osoan egindako lan guztiaren ondoren, emaitza bikainak lortu dituzte

Erredakzioa ANDOAIN

Maiatzaren 19an Eibarren jokatutako Gipuzkoako finalean, jubenil B mailan, Andoaingo taldeak 6. postua lortu zuen eta bakarkako lanetan, Amaia Garcia 3. postua eta Maialen Izuetak 4. postua. Senior mailan, Laida Regillagak 2. postua lortu zuen pilotarekin eta 3. izan zen sailkapen orokorrean. Shua Lasa, aldiz, hirugarrena izan zen sailkapen orokorrean. Maider Arak, azkenik, 7. postua lortu zuen.

Maiatzaren 27an Durangon jokatutako Euskadiko txapelketan, neskek 11-15 postuen artean sailkatu ziren.



Oskarbi taldekoak Eibarren ateratako argazkian. JOSEBA SALBADOR



AIURRI

Kirolzaleen jaialdia

KIROL EGOKITUAK Larunbatean kirol jaialdiaren edizio berria antolatu zuen Andoaingo Batzokiak, herriko hainbat kirol elkarterekin batera. Azken urteetan jaialdiak dimensio handia hartu du, askotxo izanik Andoainera hurbiltzen diren kirolariak. Eguraldia zela eta, goizeko jarduera Allurralden egin zen. Argazkian ikus daitekeenez, kirolariak gogotsu aritu ziren.

Pala txapelketa aurrera doa

PALA Joan zen larunbatean euria gogotik ari bazuen ere, partida guztiak jokatu ziren. Iturzaeta batzordeak esker ona adierazi nahi die parte hartzaileei: "Pilotariak kantxako ura kentzen egin zituzten beroketa lanak. Eskerrik asko guztiei". Asteburu honetan Sorabillan, nesken azken partidak jokatuko dira, eta mutilen mailako final zortzirenak.



ITURZAETA BATZORDEA

Senior mailako taldeak agur esan dio denboraldiari

FUTBOLA Igoera lortzeko amestetik esnatu dira urdinak, joan zen asteburuan Elgoibar-en aurka 4-1 galdu eta gero. Amaiera gazia izan bada ere, denboraldi ona burutu dute. Jubenil mailan, bi multzoetako txapelketa arteko finalean, Ekintzak 4-3 irabazi zion Euskaldunari. Euskadiko txapelketan infantilek 4-0 galdu zuten.

Frantziako Tourra bertatik bertara ikusteko bidaia

TXIRRINDULARITZA Urnietako Kantoi tabernan datozen uztailearen 26-27 egunetarako irteera antolatu dute, txirrindulariak Tourmaletetik pasatzen ikusteko asmoarekin. Uztailearen 26an kiroldegitik irtengo dira, eguerdiko 12:00tan. Uztailearen 27ko etapa amaituta itzuliko dira. Izen-ematea zabalik dago. Prezioa: 55 euro.

Zirkuito txapelketa

PATINAIA Ubitarteko atletismoko pistan, igande goizean, Gipuzkoako II. zirkuito txapelketa jokatu zen. Alebin mailatik hasi eta masterrak bitarte, goiz osoko jardunaldia osatu zuten. Argazkian, infantil mailako podiuma: Nesketan, Marta García (1), Naiara Badillo (2) eta Maren Sarasola (3). Mutiletan: Joanes Zibiko (1), Simon Villalobos (2) eta Julen Urkixar (3).



AIURRI

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 31

ANDOAIN Matrikulazioa

Goazen Jolastera: 2010-15 urteetan jaio direnentzat, goiz pasa ibiltzeko aukera ekainaren 26tik aurrera.

Gazte Lokala, Pio Baroja 1.

ANDOAIN Emanaldia

Musika eskolako abesbatza.

18:45, Bastero plaza.

OSTIRALA 1

ANDOAIN Lehiaketa

Salkin merkatarien elkarteak logotipoa eta leloa berritzeko lehiaketa antolatuta du. Parte hartzeko aukera, ekainaren 1etik 15era. Saria: 500 euroko erosketa txartela.

Salkin, Ondarreta 6. 09:00-12:00.

URNIETA Gure Esku Dago

Ekainaren 10eko giza-katean izena emateko aukera berria.

18:00-21:00, Xauxar parean.

URNIETA Funky emanaldia

Ikasturte amaierako erakustaldia eskainiko dute Judith Rodriguez irakaslearen esanetara.

Sarobe, 7-10 urtekoak, 18:00.

Sarobe, 11-16 urtekoak, 19:00.

ANDOAIN Klik eguna

Gure Esku Dagoaren eskutik, pintxoak, edaria eta musika Zumea kaleko 5. zenbakian dagoen egoitzaren parean. Giza-katean izena emateko epea hilaren 5ean amaituko da.

Espigoia, 20:00.

**ANDOAIN**

Ekainak 1, ostirala. 19:00, Espigoia.

LARUNBATA 2

URNIETA Urnieta dantzan

Informazio osoa, 5. orrialdean.

Plazido Muxika plaza, 12:30.

ANDOAIN Erakusketa

Alberto Letamendirena, azken eguna.

Ohiko ordutegia, Bastero.

ANDOAIN Jaia

Ondarreta ikastetxearen ikasturte amaierako jaia.

Egun osoan zehar, ikastetxean.

IGANDEA 3

ANDOAIN Euskal jaialdia

Haurren euskal jaialdiaren edizio berria, dozenaka dantzarien parte hartzearekin.

Egun osoan zehar, herrigunean.

LARUNBATA 9

ANDOAIN Kontzertua

Natural Project taldea zuzenean.

Bastero, ekitaldi aretoa. 20:00.

ZINEMA

ANDOAIN**BASTERO****Una razón brillante**

Igandea, 3: 19:30.

Astelehena, 4: 19:30; 22:00.

IKUSLEAREN EGUNA.

El doctor de la felicidad

Larunbata, 9: 19:30; 22:00.

Igandea, 10: 19:30.

Astelehena, 11: 19:30; 22:00.

IKUSLEAREN EGUNA.


Jurassic world: el reino caído

Larunbata, 16: 19:30; 22:00.

Igandea, 17: 19:30.

Astelehena, 18: 19:30; 22:00.

IKUSLEAREN EGUNA.



SINOPSIK

**El doctor de la felicidad**

Zuz.: Lorraine Lévy. **Herr.:** Frantzia (2017). **Iraupena:** 113 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Mediku iruzurgilea

Frantziako herri txiki batera doa Knock mediku izateko. Aberatsa izatea du helburu,

jendeari iruzur eginez. Guztia aldatuko iraganeko pertsona baten presentziarekin.

Extremadurako kultur astea

El Miajon de Castuos kultur elkarteak ekitaldiz beteriko astea abiatuko du, datorren ostiralean. Honakoak lehen hitzorduak:

Ekainak 1, ostirala

20:00 Abesbatza eta dantza emanaldia.

Ekainak 2, larunbata

12:30 Irekiera ekitaldia.

16:00 Mahai-jokoak.

Ekainak 3, igandea

14:00 Lagunarteko bazkaria.

Ekainak 4, astelehena

18:00 Margo lehiaketa.

18:30 Jokoak, txokolate jatea.

TTAKUNEK KUDEATZAILEA BEHAR DU

Elkartearen kudeaketaz, plangintzaz, antolakuntzaz eta jardun-ekonomikoaren kontrolaz arduratzeko. Baliabideak optimizatuz, plan estrategikoa garatuz...

- Ezinbestekoa:**
 - Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea.
 - Goi-mailako ikasketak izatea (goi-mailako zikloa, diplomatura, gradua, lizentziatura).
 - Talde gidaritzan eta euskalgintzan eskarmentua.
- Baloratuko da:**
 - Antolakuntza, komunikazioa, lantaldeen koordinaziorako eta giza harremanetarako gaitasuna.
 - Taldean lan-egiteko gaitasuna.
 - Egitasmo berriak sortu eta proposatzeko gaitasuna.
 - Euskara C1 edo C2 izatea.
 - Ekonomia ezagutzak: diru-laguntzetan eskarmentua, zuriaketak, aurrekontuak...
 - Ofimatika ezagutzak.



ZORION AGURRAK



URNIETA
Andoni
Andoni Rosco Muñozek
7 urte beteko ditu
ekainaren 1ean.
Zorionak txapeldun!
Maite zaitugu!



ANDOAIN
Joxe Mari
Ekainaren 2an, Joxe
Mari Ollakarizketak
urteak beteko ditu.
Ondo, ondo ospatu!
Besarkada bero bat.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus

"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitez bulegora.
Tel.: 943 300 732.

Whatsappez: 619 16 35 37

AZOKA

IRAKASKUNTZA

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko** klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktika-rako, enpresetarako klaseak. 665 719 827 / 943 008 059.

LANA

Ikasle euskalduna ordu batzuk **lan egiteko prest.** 634 441 353.

AIURRI. AZOKA: diseinua@aiurri.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 2 eta igandea 3
PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 592 629. Andoain.

URNIETA

Larunbata 2 eta igandea 3
GOMEZ BRAVO: Nagusia, 14.
943 554 892. Urnieta.
Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

XII URNETA DANTZAN

ekainak 2 junio

11:00 DANTZARI TXIKIEN EMANALDIA
San Joan plaza

11:00 KALEJIRA eta DANTZA SAIOAK
Idiazabal kalea
Txanbolin txistu bandak lagunduta.

12:30 EMANALDI NAGUSIA
Plazido Muxika plaza

19:00 ERROMERIA
Zubitxo plaza
Jaiki Hadi musika taldeak girotuta.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

**Eskelak
Aiurriin:
90 euro**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Familia etorkinak gizarteratzea helburu



Olatz Lasa ANDOAIN

Atzerriko familien gizarteratzea errazteko, "Ongi etorri" programa jarri du martxan Udalak herriko ikastetxeekin elkarlanean. Etorkinak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzea da helburua, ikastetxeen eta herriko elkarteen eta taldeen kolaborazioarekin.

Bi helburu ditu programak. Batetik, familien arteko kulturartekotasuna lantzea, eta bestetik, kanpotik etorri diren familiei harrera egitea.

Ikastetxe ezberdinetako bi familia elkar aurketuzko dituzte, bata euskalduna eta bestea atzerrikoa. Modu horretan, atzerriko familiarentzat erreferente izango da familia euskalduna, eta hark herriak dituen baliabideak erakutsi beharko dizkio. Era berean, atzerriko familiaren kultura ezagutzeko aukera izango du familia euskaldunak.

Ikastetxeek pozik hartu dute berria, eta ekiteko gogotsu daudela adierazi dute. Irailean hasiko da martxan programa.

AZKENA

Giza katean izena emateko azken txanpa

Ekainaren 1ean amaituko da izena emateko epea Andoainen. Giza kateko falta den jendea biltzeko, "Klik eguna" ospatuko dute ostiralean bertan, 20:00etatik aurrera Zumea kalean dagoen Gure Esku Dago-en lokalaren aurrean

Erredakzioa URNIETA / ANDOAIN

Ekainaren 10a iristear da, eta oraindik bada giza katera batzeko aukera. Urnietan maiatzaren 31a izango da izena emateko azken eguna.

Usurbilera joatea egokitu zaie urnietarrei 15. kilometroa betetzeko, aginagatarrekin batera. Guztira, 250 lagun behar dira zati hori osatzeko.

Izen-emateak 5 euroko kostua du eta honako lekuetan egin daiteke: GED-k astero jartzen duen karpan, Kantoi eta Xauxar tabernetan, Bikain kafetegian, Muazpi harategian, Itsaspe gozodendan, Elorri belar-dendan eta Trazos ile-apaindegian. Autobus txartela 7 eurotan lor daiteke, eta 15 urte artekoek 3 eurotan.

Andoainen izena ematea

Ekainaren 1a bitarte eman daiteke izena Andoainen giza kateko. Falta den jendea biltzeko ostiralean, ekainaren 1ean, "Klik eguna" antolatu dute Gure Esku Dago-k Zumea kaleko 5. zenbakian duen lokalaren aurrean (kiroldegiko zubiaren parean dagoena) 20:00etatik aurrera. Pintxoak eta edariak dastatzeko aukera egongo da, musikaz alaiturik.



GED-k Urnietan giza katean izena emateko ipinitako karpa. URNIETAKO UDALA

Andoaindarrek Usurbil eta Aginaga batzen dituen zatian osatu behar dute giza katea, 13. eta 14. kilometroetan. 2 kilometroko ibilbidea da, eta guztira 1000 lagun inguru behar dira.

Izen-ematea Gure Esku Dago-ren lokalean (Zumea kalea, 5) egin daiteke asteartetik ostiralera 10:30etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta larun-

batean, azken eguna. 10:30etatik 13:00etara.

Autobus txartela erosteko azken eguna, berriz, ekainaren 5a izango da, eta 3 euroko kostua du.

Giza katea amaitzean, autobusak bi geldialdi egingo ditu. Lehena, Donostiako Errekalde auzoan, eta bigarrena, Andoainen.

Busean bidaia ekainaren 10ean

URNIETA

AUTOBUS ORDUTEGIA:

- **Irteera:** autobusa 10:00etan abiatuko da anbulategi zaharretik.
- **Itzulera:** 12:50etan egingo da.

GASTUAK

- Adostasun sinadura eta zapia 5 euro.
- Autobusa 7 euro (15 urte artekoek 3 euro).

ANDOAIN

AUTOBUS ORDUTEGIA:

- **Irteera:** autobusa 10:00ak aldera abiatuko da Makaldeggi plazatik.
- **Itzulera:** giza katea amaitzean autobusak hurbiltzen hasiko dira.

Autobusak bi geldialdi edukiko ditu: lehena, Donostiako Errekalde auzoan, bertan festan geratu nahi dutenentzat; eta bigarrena, Andoainen.

GASTUAK

- Adostasun sinadura eta zapia 5 euro.
- Autobusa 3 euro guztientzat.


Egunean eguneko albisteak sarean



Patinaia lasterketa Andoainen



Nora Mendizabal Herriartekoan



Eskolarteko bertso saioa

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA